

MUSIKA

AIA

► **Imuntzo ta Beloki.** San Pedron, aurtengo azken erromeria, 22:00etan.

AXPE

► **Trikitilari gazteen txapelketa.** Anboto inguruko errazen feria goizetik eta 17:30etan trikitilariak.

BEASAIN

► **Musika Bandaren kontzertua.** Loinazko San Martin plazan, 13:00etan.

BILBO

► **Bilboko Udal Banda.** Arenalean, 12:30etan.

DONOSTIA

► **Ennachat, Rasha.** Gazteszena aretoan, 20:00etan.
► **Gitarra kontzertua.** Udaletxeko pleno aretoan, 18:00etan.
► **Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioa eta Udalaren Musika eskolako orkestraren kurtso amaierako kontzertua.** Antzoki Zaharrean, 12:00etan.

EIBAR

► **Aintzane Agirrebeña eta Sor-kunde Ezenarro trikitilariak.** Euskal Jaialdia Untzaga plazan, 19:00etan. Herri-kirolak izango dira toki berean.

ELGOIBAR

► **Udal Musika Banda.** Herriko Antzokian, 12:30etan.

GERNIKA

► **Benito Lertxundi.** Santane kiroldegian, 21:00etan.

GETXO

► **Smokin´Joe Kubek Band, Bnois King.** Erromoko Santa Eugenia plazan, 21:30etan. Kaleetan Diximuelando marching taldearen musika.

IBARRA

► **Izurri berriak, Azken garraxia.** Gaztetxean, 23:00etan.

ITSASONDO

► **Herriko abesbatza eta Iruargi abesbatza.** Andra Mari Parrokian, 12:00etan.

LAPUEBLA DE LABARKA

► **Araba Euskaraz 99: Triquizio, Kalamua, Mikel Urdangarin, Irailerako 6, Sakatrik, Bide Ertzean, Gari, Trikitixa Kontraio, Skalariak, EH Sukarra.** Egun osoan zehar gun e ezberdinetan.

LASARTE

► **Oker folk taldea eta hainbat bakarlari.** Jalgi Kafe Antzokian, 13:00etan.

ZUBIETA

► **Gorramendi 10.** Plazan, 12:00etan.

ERAKUSKETAK

Erakusketa kolektiboa: J.L. Urdapilleta, F. Igartua, T. Urarte eta I. Zinkunegiren lanak • Donostiako Digitex-arte galerian • Ekain eta Uztail

Imanol Zinkunegi

• ESKULTOREA •

«Ez dago eskulturak erosteko kulturarik»

DIGITEX-ARTE galeria duela gutxi zabaldu dute Donostian. Bertan erakusketa eder bat ikus daiteke uztailaren amaiera arte: Jose Luis Urdapilleta, Felix Igartua eta Txakel Urarteren pinturak, eta Imanol Zinkunegiren eskulturak. Azken honek eman digu erakusketaren berri.

■ **Hiru pintoreren lanak eta zureak daude erakusketan. Nolakoak dira eskultura horiek?**

Nire artea sailkatzea zaila egiten zait. Baditut lan figuratiboak, baina gehienak abstraktuak dira. Dena egurrean egiten dut: batzuetan egurra datorren bezala, dauzkan formak nahiko errespetatuz, eta bestetan, egurra aurrez prestatu, enkolatu eta halako bolumen errektangular batzuetatik abiatuta. Beti antzeko formak aurkitzen ahalegintzen naiz, bolumen borobilak elkarrekin bila.

■ **Lan abstraktu horietan ba al dira errepikatzen diren ideiak?**

Jende asko, neuk askotan nahi gabe ere, abstrakzio horren barruan jabe-



GARI GARAIALDE

Imanol Zinkunegiren eskultura abstraktuak egurrez eginak dira.

tzen da formez. «Hara hemen pertsonak daude, honek ematen du halako ideia...». Magia pixka bat sortzen da eta jendeak zerbaiten antza ematen dio eskulturarari. Nik tituluak jartzerakoan, buruan garai horretan sortzen zaizkidan ideiak jartzen ditut.

■ **Magia hori sortzeko beharrezkoa al duzu egurra?**

Ni beti egon naiz egurretik gertu. Txikitan baserrira joaten nintzen uda pasatzera, aitak aroztegi txiki bat zuen Azpeitian, eta beti ibili naiz egurraren inguruan. Erakusketa honetan, dozena erdi esaldi daude egurrari buruz, nire lagunak eskainiak. Beste material batzuk ere probatu ditut alabastroan, harrian, baina nahiago dut egurrearekin jarraitu.

■ **Arte lanak saltzea, dena dela, ez da erraza izango, ezta?**

Bi sailkapen egingo nituzke. Jendea gehiago dago ohituta pintura ikustera eskultura ikustera baino. Eskultura bat nekez jartzen du jendeak etxean, ez dago eskultura erosteko kulturarik. Eta oso gutxi saltzen dugunez, zaila da aurrera egitea. Erakusketa honetan saiatu naiz eskultura koadro bihurtzen: egurrak hartu eta erliebe tankeran lan egin, metakrilatozko txapa baten gainean josi eta koadro bezala jarri. Erakusketan 11 pieza daude, baina almazenean ditudan beste 49 eskultura ordenadoreko programan sartuta daude galerian bertan.

Urtzi Urkizu
DONOSTIA

ANTZERKIA

BILBO

► **El Bataraz.** Atuei taldearen eskutik, Mina Espazioan, 20:00etan.

DONOSTIA

► **La estrella de Sevilla.** Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionalaren eskutik, Victoria Eugenia, 20:00etan.

DANTZA

ELORRIO

► **Bizkortu.** Ballet emanaldia, Arriola kultur aretoan, 11:30etan.

GETXO

► **Berantzagi.** Areetako Las Mer-

cedes kalean hasiko dira 11:00etan eta Eskoletako plazan amaitu 13:00etan.

BERTSOLARITZA

BILLABONA

► **Jon Azpillaga, Txomin Garmendia, Anjel Larrañaga.** Eguerdian eta bazkal ondoren.

DONOSTIA

► **A. Egaña, J. Sarasua, M. Lujanbio eta X. Legarreta.** Herrerako jaietan, 13:00etan.

LAPUEBLA DE LABARKA

► **M. Mendizabal, I. Lazkano, I. Murua, G. Meabebasterretxea eta S. Lizaso.** Araba Euskaraz.

MARKINA-XEMEIN

► **Mañukorta eta Peñagarikano.**

Egun osoz, Amallo auzoan. Jaiak.

OÑATI

► **Narbaiza, Sorozabal, Mendiluze, Loidisaletxe II.** Olakuan eguerdian eta bazkaritan.

TOLOSA

► **Bixente Gorostidi, Alfonso Jimenez, Amaia Agirre, Ibon Karrera.** Iurramendin, 11:30etan.

SUNBILLA

► **S. Lizaso, A. Egaña, B. Elizagoien, A.M. Peñagarikano, X. Silveira.** Pilotalekuan, 18:00etan.

LEHIAKETAK

SONDIKA

► **III. Aire-zabaleko pintura**

lehiaketa gaur. Lanak Sondikan bertan lehiaketa egunean egindakoak izan beharko dira. Lana egiteko aukeratutako toki zehaztu beharko da epaimahaiaren lana errazteko. Lanen zigiladura Udaletxean egingo da goizeko 9:00etatik 11:00etara.

BESTELAKOAK

AXPE

► **Anboto inguruko errazen feria.** 11:30etan Meza Nagusia, ondoren Atxondoko dantza taldea. 16:30etan umeen jolasak eta txokolatada. 17:30etan trikitilari gazteen txapelketa eta 19:00etan pilota partiduak.

AZKOITIA

► **Karmelo Etxegarai ikastolako gurasoen eguna.** Eguerdian elkarren arteko apustuak eta jolasak egingo dira, eta etxean eginitako postreen erakusketa. Bazkal ondoren Izer eta Alabier trikitilariak alaituko dute arratsaldea. Txikientzat jolasak izango dira arratsaldean.

DONOSTIA

► **Artisauen azoka.** Herrerako jaietan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Era berean, herri kirolak Saralegi anai-arrebekin 12:00etan, 14:00etan bazkaria presoen alde eta 18:00etan herri kirolak.

GETARIA

► **HIESari buruzko mahai informatiboa.** Gudarien enparantzan, 12:00etatik 14:00etara. Getariako Hiesaren aurkako taldeak antolatuta.

HONDARRIBIA

► **Aintzinako Feriak.** Egun osoan zehar.

ORIO

► **Bixiguaren eguna.** Lehiaketa herriko parrileroen artean egingo da, Udalak eta Arkupe elkarrekin antolatuta. 12:00etan hasiko da bisigu lehiaketarekin. Goiz osoan hainbat produkturen azoka izango da plazan. 13:00etan bisigu lehiaketa sari banaketa egingo da. Ondoren sardina erreak jateko aukera izango da, txakolina eta sagardoarekin batera. 13:30etan ospakizunari amaiera emateko Orioko zubiaren inaugurazio ofiziala egingo dute agintariak.

PORTUGALETE

► **Euskararen eguna.** 12:00etan hasiko da umeentzako tailerrekin. 13:30etan dantzaldia izango da Elai-Alai Berriztasuna eta Lora-Barri taldeekin. 15:00etan herri bazkaria. 17:00etan bertsolariak: Beñat Gaztelurrutia eta Arkaitz Ugartetxea. Egunari amaiera emateko erromeria izango da Xuhat taldearekin, 18:30etatik aurrera.